

**Gaur, maiatzak 17, LGTBI+Fobiaren aurkako nazioarteko eguna da.** Deseskaladako une hauetan, neurri murriztaileekin kalera irten gaitzke, baina ezin izango gara elkartu aniztasuna gozatzeko eta bizitzeko eskubidea dugula ozen eta argi oihukatzen. Hala ere, heteroaraua eta binarismoa hautsi nahi ditugula aldarrikatuko dugu eta hori lortu arte borrokan jarraituko dugula.

Nahiz eta duela 30 urte OMEk homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik kendu zuen, LGTBI+Fobia, oraindik, jendartearen eremu guztietan dago. Gorputz, sexualitate eta genero anitzak dituzten pertsonen onarpenean aurrerapen handiak egin diren arren, badira ezbehar hori modu bereziki gordinean pairatzen duten hainbat kolektibo, eta horien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

- **Gazteak**, askotan, beren nortasunak, izateko moduak eta nahiak askatasunez adierazteko izaten dituzten zailtasunengatik.
- **Migratzaileak eta asilo-eskatzaileak**, paratzen duten kalteberatasun- eta prekarietate-egoera bereziagatik.
- **Lesbianak**, ezarri zaien ikusezintasunagatik.

Egoera horren aurrean, **argi utzi nahi dugu lanean jarraituko dugula agerikoak, buru askiak eta askeak izan arte.**

Bizitza egokitzen ari zaigun une honetan, ALDARTEko kideok pertsonak aldarrikatu eta erdigunean jarri nahi ditugu. Mundu jasangarriago, bidezkoago eta solidarioago batean sinesten dugu, arlo publikoa esparru guztietan defendatu behar den mundu batean, giza eskubideen eta justizia sozialaren alde borrokatzeko beharra begien bistatik galdu gabe. Uste dugu inflexio-puntu batean gaudela, eta batu egin behar dugula LGTBI+Fobiarik gabeko gizarte solidarioago bat eraikitzeko, non pertsona guztiak aske izan eta bizi ahal izango diren.

**AUKERA BALIATU ETA MUNDUA IRAULI DEZAGUN!!!**

**Hoy, 17 de mayo, es el día internacional contra la LGTBI+Fobia.** En estos momentos de desescalada, pudiendo salir a la calle con medidas restrictivas, no podremos reunirnos para gritar alto y claro que tenemos derecho a disfrutar y vivir la diversidad. Aun así, reivindicaremos que queremos romper con la heteronormatividad y el binarismo y que seguiremos luchando hasta que lo logremos .

A pesar de que la OMS retiró la homosexualidad de la lista de enfermedades mentales hace 30 años, la LGTBI+Fobia sigue presente en todos los ámbitos de la sociedad. Aunque se ha avanzado mucho en la aceptación de las personas con cuerpos, sexualidades y géneros diversos, hay algunos colectivos que sufren esta adversidad con especial crudeza, de los cuales, queremos destacar los siguientes:

- **Las persona jóvenes** ya que muchas veces tienen dificultades para poder expresar libremente sus identidades, formas de ser y deseos.
- **Las personas migrantes y solicitantes de asilo** por su especial situación de vulnerabilidad y precariedad.
- **Las lesbianas** por la invisibilidad que se les ha impuesto.

Ante esta situación, queremos dejar claro que **seguiremos trabajando para poder ser visibles, autosuficientes y libres, queriendo y siendo lo que deseemos.**

En el momento que nos está tocando vivir, desde ALDARTE, queremos reivindicar y poner a las personas en el centro. Creemos en un mundo más sostenible, justo y solidario, en el que es necesario defender lo público en todos los ámbitos, no perdiendo de vista la necesidad de luchar por los Derechos Humanos y la Justicia Social. Creemos que nos encontramos en un punto de inflexión en el que debemos unirnos para luchar por construir una sociedad libre de LGTBI+Fobia y más solidaria en la que todas las personas puedan ser y vivir libremente.

**¡¡¡APROVECHEMOS ESTA OPORTUNIDAD Y  
REVOLUCIONEMOS EL MUNDO!!!**

